

IRAKASPIDEAK

ON Bernardo erri koškor bateko eskola-maisua zan. Bere ikaslariak mutiko buru-gogor, baldar, kaiku batzuek ziran.

Nork ayen buruetan sartu arazi ikaskizunik errešena. Beti okerrera jotzen zuten.

On Bernardo gizarajoa ariko zan ordu osoan gauza bat erakutzi nayeze eta azkenian maisuak erakutzi nai zituen gauza guztiyak beste aldera ikasiko zituzten. Beti okerrera.

Arratsalde osoan erakusten ba zioten bi ta bi lau dirala, ikasteche-tik bost dirala esanaz irtengo ziran mutikoak.

Eta beti orrela. Aspertzeko ere bazan. Bañan On Bernardo, eskola-maisutako jayoa izan nonbait eta ezeren gatik etziyon uzten bere eginkizun astun arri.

Illunabarrian aserre etcheratzen bazan, urrengo goizian, betiko bere parirriyakin biurtuko zan ikastechera, ta berriro erasoko ziyon egunoroko lanari, ezer gertatu ez balitz bezela.

Larunbatetan lege-zarreko kondaira erakuzten zien, eta ez dago zer esanik nolako astokeriak irteten ziran mutiko ayen aboetatik.

Ludi guziko ugolde ikaragarriaz itzegin zioten egun batian.

—¿Zer egin zezakian Jaungoikoaren lagun zan sendi bakarrak, zion On Bernardo'k, euri-gas izugarria bere gainzettorrela ikusi zuenian?

—¡Euritakua zabaldu! Oju egin zuten batian mutikorik geyenak.

—¡Ez! erantzun zuen On Bernardo'k, etzuben orlako asmorik artu. Jaungoikoa'ren itza entzun zuben, eta Bera'ren aginduz *arka* bat egin zun.

On Bernardo'k esan zun *arka* ta ez kucha, bada azkeneko itz au

esan bazioten usteko zuten mutikoak echean zeuzketan kucha bezelakoen batian sartu zala Noe'ren sendia, abere ta piñti mota guziyakin.

Arka, zion maisuak, ur gañian jasotzen zan ontzi zendo, aundi bat zan.

—Pleiterua izango zan, esan zuben mutil koskor batek.

—Zer izan biar zikan pleiterua, erantzunzion beste batek; ez dakik bada pleiterua izan ezkerro *plei plei* egingo zala.

—¡Iñso! oju egin zioten maisuak, Etzan orduban ez pleiterorik ez kechemariñik. Ura zan *arka* ta beste ezerchore ez.

Euriya asi zan parra parra, geroago ta sendoago, geroago ta ugari-go; ta eguna juan eta eguna etorri ta beti berdin; ura alderdi guzieta-tik, euri-zigorrada ikaragarriak entzuten ziran.

Bazirudien etzubela beñere amaitu biar. Ala ere noizbait euriya gelditu zala iduritu zitzaizen, *arka* jeñten zijoala ere antz eman zien. ¿Nola jakin ordia, egiya zan ala ez?

Ara zer somatu zuen Noe argitsuak. Artu zuben uso bat eta *arka'* tik kanpora bigaldu zuben. Ichogon izan biar izan zuben naikoa, baña azkenian biurtu zan usoa mokuan zekazkillu osto eze gordiñak.

Onak adierazi zion Noe'ri ugoidea amaitu zala, urak chukatzen zijoazela, zuaitzak berriro lurraren gañian zut-zutik arkitzen zirala, ta itz batian esateko *arka'tik* irten zeizkiela.

Usoari eskerrak jakin zituen gauz oyen guziyak, eta batere bildurrik gabe irten zitekien *arka'tik* berriro len bezela lurraren gañian bitzitzeko.

Usoaren joan etorriak iriki zizkaten beraz leku artako atiak.

Orain ikusi dezatan nik esantakoak ongi aditu dituzuten, galdeera bat egin biar dizutet: ¿zer abere irten zan lenengo *arka'tik*?

—¡Arkakusoa!, karrañika erantzun zuten mutiko guziyak.

Maisuba oso asarretu zan, eta erotzeko zoriyan oju egin ziyan:

—¡Kaikubak! ¿Nola ordia?

—¿Nola? Beorrek esan bezela:

Arka'kousoa.

A. DARRA